



FUNTSEZKO JARDUERAK

Hemen, Intelligent BT-a osatzen duten materialak eta haren diseinuari buruz emango dugu azalpena. Produktua berria eta konplexua denez, denborarekin aldatzen joango da, modernizatuz. Hau soilik, lehenengo prototipoa da, eta web orrian, feedbacka eta hobekuntza proposamenak jasotzeko atal bat izango dugu.

Intelligent BT fabrikatzeko beharko dugun material bakarrak txipa eta honen euskarria dira. Txipak eginak erosiko dizkiogu “DigiKey Spain” enpresari. Beraiek ekarriko dizkigute txipak lantokiraino. Gero, gure enpresako langileak txipak programatuko dituzte, pixa konposatzen duten elementuak identifikatzeko gai izateko. Edozein komunean jartzeko balio behar dutela pentsatuz egin dugu, eta horregatik komunaren barrualdean itsasten da.

Produktua gehiago saltzeko eta pertsona gehiagori iristeko, publizitatuko dugu sare sozialetatik. Twitter, Instagram eta Facebook bezalako sare sozialen doainezko publizitatearen aukera egingo dugu, perfil ofizial sortuz produktuari eta guk administratuz kontua.